

LITERATURA. Helduek ez zioten harrera onik egin 1945ean, argitaratu zenean, baina umeak liluratu egin zituen

Astrid Lindgren hil da, 'Pippi Kaltzaluze' sortu zuen idazlea

Liburuaren 100 milioi ale saldu dira mundu osoan zehar, 60 hizkuntzataraz itzuliak

Juan Luis Zabala | DONOSTIA

Astrid Lindgren suediar idazlea atzo hil zen, 94 urte zituela, Stockholmeko Vasastan auzoan zuen etxean. Haren alaba Karin Nyman-ek zabaldu zuen albistea. Pippi Laangstrump—edo Pippi Kaltzaluze— pertsonaia ezagunaren sortzailea zen Astrid Lindgren. *Pippi Laangstrump* liburua 1945ean eman zuen argitara Lindgrenek, eta gerora pertsonaia beraren beste abentura batzuk ere argitaratu zituen.

Guztira, 100dik gora dira Lindgren zenak idatzitako liburuak, eta horien arteko gutxi batzuk besterik ez dira Pippiren abenturetan oinarrituak, baina pertsonaia horri estu lotuta agertzen da beti Lindgrenen izena. Ez da harritzekoa ere, *Pippi Laangstrump* liburuaren 100 milioitik gora ale saldu baitira munduan, suedieraz zein beste 60 hizkuntzataraz itzuliak: euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz, alemanieraz, inglesesez, portugesez, swahiliz, zulueraz, uzbekieraz...

Pippirengan oinarritutako telesailak ere oso arrakastatsuak izan dira. 1958an Anderssen saria jaso zuen Lindgrenek, eta 1994an Nobel alternatiboa.

Guztiz sorrera xumea izan zuen, hala ere, *Pippi Laangstrump* liburuak. Karin alaba gairik zelarik, hari kontatzeko ipuinak asmatzeki ekin zion Astrid Lindgren, eta alabak 10 urte bete zituenean ipuin haien bilduma eman zion opari, kaiera batean. Gero, Ilon Wikland-ek egindako ilustrazioekin, liburua argitaratu zuen.

Europako haur eta gazte literaturan 60ko hamarkadan gertatu zen iraultzaren eta modernizazioaren aitzindari izan zen Astrid Lindgren, Mariasun Landa idazlearen ustez. «Aurrea hartu zion, beraz, gero literatura modernotzat jo izan denari».

«Helduen artean desagokizatzen zuten *Pippi Laangstrump*, eta umeak izan ziren liburua salbatu zutenak», ekarri du gogora Landak. «Liburu askorekin

BIBLIOGRAFIA

Liburu nagusiak

- *Britt-Mariren aitorpenak* (1944).
- *Pippi Kaltzaluze* (1945).
- *Blomkvist maisu detektibea* (1946).
- *Pippi itsasorako asmotan* (1946).
- *Bullerbyngo neska-mutilak* (1947).
- *Pippi Hegoaldeko itsasoetan* (1948).
- *Mio, ene semea* (1953).
- *Lehoibihotz anaiak* (1973).
- *Nire mundu galdua* (1984).
- *Nork nahi du ondo pasatu?* (1990).

Euskarara itzuliak

- *Pippi Kaltzaluze* (Elkarlanean, Xaguxar saila; itzultzailea: David Urbistondo).
- *Pippi itsasorako asmotan* (Elkar, Xaguxar saila; itzultzailea: Joxan Ormazabal).
- *Pippi Hegoaldeko itsasoetan* (Elkar, Xaguxar saila; itzultzailea: Joxan Ormazabal).

MARIASUN LANDA


Idazlea

«Haur literaturaren historiako pertsonaia nagusietako bat da Pippi, transgresorea delako»

gertatu da hori. Haurra ez da zuzenean sartzen liburuarekin harremanetan, gurasoen edo eskolaren bitartez baizik, eta heziketaren munduak arriskugarri, desagoki eta are antipedagogikotzat izan du beti fantasia; euskal irakaskuntzaren munduan ere gertatu da hori, jakina. Fantasia soilak beldurra eman dio beti helduari.

Transgresorea, Alice, Pinoccio, Tom Sawyer eta abar legez

«Pippi Laangstrump haur literaturaren historiako pertsonaia nagusietako bat da», Mariasun Landaren ustez, «transgresorea



Goian, Astrid Lindgren, 1995ean, *Pippi Laangstrump* liburuaren 50. urteurrenean. Behean, Inger Nilsson aktorea, Pippiren rolean.

delako. Haur eta gazte literaturako pertsonaia nagusiak transgresoreak izan dira ia beti: Alice, Pinoccio, Tom Sawyer eta Huckleberry Finn... Errealitatearekiko, familiarekiko, gezurrekiko eta abarreko transgresoreak dira guztiak. Pippi ere horrelakoa da, eta haurren oso gustukoa, noski.

Pippi neska izateak ere helduengandik hasieran izandako harrera hotzean zerikusirik izan zuela uste du Mariasun Landak. «Alice ere neska bat da, baina oso arrazionala; Pippi oso beselakoa da», dio Landak. «Pippi bezalako neska bat sortzea, li-

burua argitaratu zen garaian, iraultzailea izan zela uste dut. Horretan ere aitzindari izan zen Astrid Lindgren».

Astrid Lindgren bere haurtzaroa kontatuz idatzitako liburu autobiografikoa ere —*Nire mundu galdua*— liburu zoragarritzat du Landak. «Oso liburu xumea eta gomendagarria da, oso atsegina irakurtzeko, eta oso iritzi interesgarriak agertzen ditu. Esaterako, haur eta gazte literatura idaztean, helduen literatura idaztean adinako seriotasunez eta zorrotasunez egin behar dela dio, eta, batez ere, askatasun osoz».

Oñatiko ikastetxe bateko ikasleen poemak kaleratu ditu Hatsa Elkarteak

Erredakzioa | DONOSTIA

Oñatiko Udalaren eta herri bereko Mikel Aozaraza ikastetxearen laguntzaz, ikastetxe horretako hainbat ikaslek idatzitako poemekin osatutako liburua eman berri du argitara Hatsa Elkarteak: *Hatsaren Poesia 2002. Oñatiko Mikel Aozaraza Ikastetxeko ikasleen Olerki Bilduma*.

Ikastetxeko ikasleek azkeneko bost urteotan poesia lantzen egindako lanaren ondorio da funtsean liburu argitaratu berria. Ikasleen poemak bildurik, Hatsa Elkarteak iazko martxoan Senperen antolatutako poesia-elkarraldian izan zen Andoni Salamero, Mikel Aozaraza ikastetxeko irakaslea, eta Auxtin Zamora Hatsa Elkartearen kideari eman zizkion poema haiek.

Poemak irakurri ostean, argitaratzea erabaki zuen Zamorak, eta orain liburua kalean da. Maitea Aincy, Josanton Artze, Jon Maia, Jose Luis Padron eta Juan Luis Zabalak testu bana idatzi dute, liburua osatzeko.

Otsailaren 15ean egingo da liburuaren aurkezpena, Oñatiko Santa Ana antzokian.

Liburu gordina idatzi du Afganistani buruz hango emakume batek

Erredakzioa | DONOSTIA

Jaioterrian bizi izandako esperientzia lazgarriak kontatuz osatutako liburua Europar ari da zabalitzen egunotan bere burua Latifa ezizenez aurkezten duen afganistandar emakume gazte bat. *Aurpegi ostua. Kabul 20 urte izateko du izenburu* Latifaren liburuak.

«Ez nuen liburu politiko bat egin nahi eta hainbat muga jarri nizkion horregatik neure buruari», azaldu zuen Latifak atzo Parisen. Gaztelaniazko bertsioa asteon aurkeztuko da. Frantsesezkoa iazko azarotik da kalean.